

Bilbo 'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1929'ko Ilbeltzaren 25'an.

Aurêko agirian aipatzen diran euskaltzaiñak bildu dira Azkue maipuru dutela. Otoitzez asi da.

I.—Batzañaldi guzia Iztegi-lanetan igaro zaigu ta azterbideak egiñik *Ab origenes* arte iritxi gera.

Lan gogor au aurera eramateko, Altube jaunaren otupenez, abek erabaki dira: egindako lanetatik xerenda edo kopia euskaltzaiñai eman bear zaie. Abek xerenda ori beren etxean aztertu lezateke ta zeritzazkieten oarpenak edo itz beñiak xerenda-inguru ipiñi. Batzañaldira ez datozen euskaltzain jaunak, xerenda ori biali bezate, edo oarpenez edo oarpenik gabe. Oarpenik gabe xerenda baletor, antxe dagon itza ontzat daukatela aderazten dute. Batzañaldira datozenak, ezeren oarpenik edo itz-beñirik ez balekarte, auxe ere xerendan dagon itzaren oniritxitzat emango da. Oñela beaz: oarpenik edo itz-beñirik ez dakarten itzez, ez da auturik iñolaz joko ta ontzat emango dira.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzañaldi au.

Donostian, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian, 1929'ko Otsailaren 27'an.

Batzañ ontara euskaltzain jaun abek datoz: Azkue, maipuru, Urkijo, Landeñetxe, Altube, Lakonbe, Intza, Intzagarai ta Etxegarai: urgazletatik Ormaetxea jauna.

I.—Azkue jaunak, Kanpion jaunaren eskutitz bat irakuri digu, ezin etoñi dala esanik. Iztegi-lanetan jardun degu. Batzuek esan dute Azkue jaunaren iztegi erdal-euskera eredu bezela artu bear dala; ta asko itz egin eta ezer ez da erabaki. Otoitzez amaitu da.